



GOBERNU BATZARRA

2021.06.08

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Xabier Balerdi Tolosa

Begoña Tolosa Mendia

Nerea Letamendia Beloso

Patxi Amantegi Zubiria

Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko ekainaren zortzian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda:

1. Akta hau onartzea: 2021eko maiatzaren 25eko ohiko bilkurakoa.
2. Hasierako onespina ematea 24. lurre esparruko "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko urbanizatze jarduketa programa egikaritzeko hirigintza hitzarmenari.
3. Dekretu hauen berri ematea:

2021/ 904 Dekretua: 2021/15 eta 2021/16 faktura zerrendak.

2021/ 903 Dekretua: 2021/17 faktura zerrenda.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO MAIATZAREN 25EKO OHIKO BILKURAKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko maiatzaren 25ean egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. HASIERAKO ONESPENA EMATEA 24. IURRE ESPARRUKO "24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA" AZPIESPARRUKO URBANIZATZE JARDUKETA PROGRAMA EGIKARITZEKO HIRIGINTZA HITZARMENARI.

1.- AURREKARIAK

1. 2021/04/15ean, Construcciones Sukia Eraikuntzak, S.L.k (sustatzaileak) bizitegitarako hiri-lurzoruaren 24.1 azpierzemua ituntze-sistemaren bidez kudeatzeko hitzarmena aurkeztu zuen Udalean, izapidetu eta onartzeko.



2. Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021/05/18an, 24.1 azpierzemuko UJPri hasierako onarpena ematea erabaki zuen, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jartzea eta interesdunei jakinarazpen pertsonala egitea.

3. 2021/05/27an, Udalbatzak 24.1 azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari behin betiko onespina eman zion.

2.- AZTERKETA JURIDIKOA

Tolosako Udalaren aholkulari juridiko Joseba Beristain Eguiak urbanizatzeko jarduketa programa egikaritzeko Hitzarmen Urbanistikoari buruz ekainaren 3an egindako txostenean honako hauek jaso ditu:

“(…)

Zuzenbideko oinarriak

- *24.1 azpierzemuko UJPk hitzarmen-sistema ezartzen du exekuzio pribatuko araubideko jarduketa-sistema gisa. Horrela, ekimen pribatuari jakinarazten zaio jarduketa integratua Udalaren ikuskaritza eta tutoretzapean eraldatzeko erantzukizuna.*
- *Urbanizazio- eta eraikuntza-obra aldian baterako gauzatzeko egutegi bat jasotzen du UJPk.*
- *2006ko Lurzoru Legearen 160.2 artikulua xedatzen duenez, jabetzak UJP gauzatzean bere gain hartzen dituen konpromisoen gutxieneko edukia ezartzean, hitzarmenari urbanizazio- eta eraikuntza-obra garatzeko baldintzak zehazteko gaitasuna ematen dio*
- *Udalaren iritzipean jarritako dokumentu konbentzionala aztertu ondoren, 2006ko Lurzoruan Legearen 160. artikulua eskakizunak betetzen dituela esan daiteke. Izan ere: lurren jabetzaren % 50 baino gehiagok sustatzen du, UJPn iragarritako eremuaren eraldaketaren denbora-sekuentzia errespetatzen du, birpartzelazio-*



proiektuaren esku uzten du erabilera bakoitzeko haztapen-koefizienteak definitzea, erabilera bereziari dagokionez, aprobetxamenduaren eta kargen bidezko banaketa bermatzeko eta % 15eko legezko lagapenagatik udal-eskubidearen azken zehaztapena bermatzeko, eta urbanizazio-kargen % 7ko bermea emateko konpromisoa hartzen du.

- *Hitzarmenaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta 20 egunez jendaurrean egon ondoren, alkateak eta sustatzaileak sinatu beharko dute.*

Ondorioak

Lehenengoa: *24.1 azpiesparruko kontzertazio bidezko UJP esleitzeko kudeaketa hitzarmenak lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritakoak betetzen ditu.*

Bigarrena: *Izapidetzeko, eduki osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, eta jendaurrean jarri, 20 egunez.*

Hirugarrena: *Epea amaitutakoan, hala badagokio, hitzarmena sinatuko da, Idazkaritzako txostenak horretarako xedatzen dituen formalitateei jarraikiz.”*

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Hasierako onespena ematea “24. lurre” esparruko "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa programa (UJP) egikaritzeko hirigintza-hitzarmenari.

BIGARRENA.- Urbanizatzeko jarduketa programa egikaritzeko hirigintza-hitzarmenaren testu osoa jendaurrean jartzea 20 egunez, alegazioak egin ahal izateko, eta dagokion



iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedapen handieneko Gipuzkoako Lurralde Historikoko egunkarian edo egunkarietan. Halaber, hitzarmena udal honen egoitza elektronikoan egongo da interesdunen eskura, helbide honetan: <https://www.tolosa.eus>.

HIRUGARRENA.- Agintzea urbanizazio-kargen % 7ko bermea ezarri beharko dela urbanizatzeko jarduketa programa egikaritzeko hirigintza-hitzarmenari behin-betiko onespena eman aurretik.

LAUGARRENA.- Behin betiko onespena eman ondoren, hitzarmena sinatzea Idazkaritzako txostenak horretarako xedatzen dituen formalitateei jarraikiz.

BOSGARRENA.- Ebazpena jakinaraztea espedientearen sustatzaileari eta ondasun eta eskubideen titularrei, hogeita (20) eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten.

SEIGARREN.- Erabaki honen berri ematea Hirigintza Sailari.

3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2021/ 904 DEKRETUA: 2021/15 ETA 2021/16 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2021/904 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2021KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hauek:

15. zenbaki duena, 47.389,44 eurokoa.

16. zenbaki duena, 529.694,96 eurokoa.



TOLOSAKO
UDALA

2021IGBA00011

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- *Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

15. zenbaki duena, 47.389,44 eurokoa.

16. zenbaki duena, 529.694,96 eurokoa.

BIGARREN.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

*Nire aurrean,
idazkaria*

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2021/ 903 DEKRETUA: 2021/17 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2021/903 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, *Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hau:



TOLOSAKO
UDALA

2021IGBA00011

17. zenbaki duena, 5.695,95 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- *Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

17. zenbaki duena, 5.695,95 eurokoa.

BIGARREN.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendía

*Nire aurrean,
idazkaria*

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:55ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IGBA0011-2021-06-08 Gobernu batzarra akta/2021-06-08 Gobernu